

ANTSOAIN

Antsoaingo Udaleko hileta zibilak eta harrera zibilak egiteko prozeduraren erregelamendua. Behin betiko onespena

Antsoaingo Udalak, 2010eko martxoaren 31n egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Antsoaingo Udaleko hileta zibilak eta harrera zibilak egiteko prozeduraren erregelamendua, 2010eko 51. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua, apirilaren 26an.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluari jarraituz, eta jendaurrean egoteko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe iraganik, ordenantza hori behin betiko onetsi eta osorik argitaratzeko agindu da, behar diren ondorioak izan ditzan.

Antsoainen, 2010eko maiatzaren 14an.-Alkatea, Antonio Gila Gila.

ERANSKINA

ANTSOAINGO UDALEKO HILETA ZIBILAK ETA HARRERA ZIBILAK EGITEKO PROZEDURAREN ERREGELAMENDUA

Zioen azalpena:

Hileta zibilak eta harrera zibilak egiteko eskaria hasiberriari erantzuteko asmoz erabaki da erregelamendu hau onestea, haren xedea baita Antsoaingo Udalaren organoen eta zerbitzuen jarduteko prozedura arautzea hileta zibilak eta harrera zibilak egiteko.

Erregelamendu honen bidez, Antsoaingo Udalak herriko bizilagun guztiei eskaini nahi die hileta zibilak eta harrera zibilak egiteko aukera.

Erregelamendua onetsi ondoren, instituzio honek ekitaldi zibilak garatzen ahalko ditu, eta herriko bizilagunek errito zibil hori egiten ahalko dute, gainerako herritarrekin partekatua.

I. TITULUA

HILETA ZIBILAK EGITEA

1. artikulua. Eskariaren arabera eta etorkizuneko erabakiak ukatu gabe, hasiera batean, Udalaren erabilera anitzeko gela berria (Loza kaleko beheko solairukoa) erabiliko da, egokiak juzgatzen diren beste eginkizunen artean, bizilagun zenduen hileta zibilak egiteko, herrian hil baino sei hilabete lehenago gutxienez erroldaturik bazegoen, salbu eta lehen aipatu den epean jaio ziren pertsonendako.
 2. artikulua. Alkatetzak edo une haietan herrian ardura nagusia duenak erabakitzen duenean salbuespen berezi bat dagoela, bestelako tokiak eta denborak erabiltzen ahalko dira, kasu jakin horretarako egokiagoak.
 3. artikulua. Gela horren erreserba eta hileta eginen dira gehienez 10 egun naturaleko epean, heriotzatik hasita, eta berehala tramitatuko dira, egoerak hala eskatzen baitu. Aurreikusitako egunean gelaren erabilera ezin bada baimendu, zergatia azalduko da eta beste data batzuk proposatuko dira. Eskaria udal erregistroan aurkeztu beharko da, Udalaren gelak erabiltzeko tasak ordaindu izanaren frogagiriarekin batera, eta Alkatetzak zehazten duen organoaren edo prozeduraren bidez tramitatuko da erreserba. Oro har, egintza hobeki gauzatu ahal izateko, egun bakoitzeko ez da erreserba bat baino gehiago eginen.
 4. artikulua. Horretarako erabiliko den gela txukun egonen da, behar bezain duin bertan eginen den ekitaldirako.
- Senideek edo hurbilekoek modu berezian apaindu edo egokitu nahi badute, erreserbatzeko eskarian hala adierazi beharko dute, behar bezala jokatzeko, eta eskatzailearen kargura izanen dira horregatik sortzen diren gastu guztiak. Udalaren arduradunek ikuskatzen ahalko dituzte apaintze edo egokitze berezi horiek.
5. artikulua. Hileta zibila baimenduko da, eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoan, Alkatetzaren ebazpenaren bidez edo horrek zehaztutako prozeduraren bidez.
 6. artikulua. Horretarako proposatutako gelak hainbat erabilera dituzenez gero, ordutegia hau izanen da hileta zibilak egiteko: astelehenetik larunbatera, herrian jaiegun ez badira, 18:00etatik 21:00etara.
 7. artikulua. Ekitaldiak gehienez ordu bat eta hogeita hamar minutu iraunen du; bitartean, ezin da ikusgai paratu ekitaldiaren izaerarekin bat egiten ez duen ikurrik. Halaber, ekitaldia ezin izanen da egin zendu den pertsonaren hilotza bertan dela.

8. artikulua. Duen izaera dela-eta, horretarako erabiliko den gela ezin izanen da utzi egintza erlijiosoetarako edo, organo eskudunaren ustez, areto horren helburua desitxuratu dezaketen beste erabilera batzuetarako. Organo horrek zainduko du delako gela hori xede jakin horretarako erabiltzen dela.

9. artikulua. Lagapenaren baldintzak dagokion Udalaren organoak onetsitako baimenean zehaztuko dira, eta baimen horretan ezartzen ahal da eskatzaileak jaso zuen bezala itzuli behar duela instalazioa.

10. artikulua. Araudi honetan aurreikusten ez den orotan, Udalaren arduradunek une bakoitzean egokiak irizten dieten aginduak bete behar dira.

11. artikulua. Baldintza horiek ez betetzeak erantzukizun edo zehapen administratiboak ekarriko ditu.

II. TITULUA

HARRERA ZIBILAK EGITEA

12. artikulua. Eskariaren arabera eta etorkizuneko erabakiak ukatu gabe, hasiera batean, Udalaren erabilera anitzeko gela berria (Loza kaleko beheko solairukoa) erabiliko da, egokiak juzgatzen diren beste eginkizunen artean, harrera zibilak egiteko ekitaldi horren gertaera eragilea sortu baino sei hilabete lehenago gutxienez herrian erroldaturik dauden familien ume jaioberriei edo adoptatuei edo familietan hartzeko araubidean daudenei (araubidea aldi behingoa ez bada).

13. artikulua. Erreserba eskatu behar da gehienez 6 hilabeteko epean ekitaldi horren gertaera eragilea sortu zenetik aurrera, eta harrera egin nahi den data baino 72 ordu lehenago gutxienez. Aurreikusitako egunean gelaren erabilera ezin bada baimendu, zergatia azalduko da eta beste data batzuk proposatuko dira. Eskaria udal erregistroan aurkeztu beharko da, Udalaren gelak erabiltzeko tasak ordaindu izanaren frogagiriarekin batera, eta Alkatetzak zehazten duen organoaren edo prozeduraren bidez tramitatuko da erreserba. Oro har, egintza hobeki gauzatu ahal izateko, egun bakoitzeko ez da erreserba bat baino gehiago eginen.

14. artikulua. Horretarako erabiliko den gela txukun egonen da, behar bezain duin bertan eginen den ekitaldirako.

Senideek edo hurbilekoek modu berezian apaindu edo egokitu nahi badute, erreserbatzeko eskarian hala adierazi beharko dute, behar bezala jokatzeko, eta eskatzailearen kargura izanen dira horregatik sortzen diren gastu guztiak. Udalaren arduradunek ikuskatzen ahalko dituzte apaintze edo egokitze berezi horiek.

15. artikulua. Harrera zibila baimenduko da, eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoan, Alkatetzaren ebazpenaren bidez edo horrek zehaztutako prozeduraren bidez.

16. artikulua. Horretarako proposatutako gelak hainbat erabilera dituzenez gero, ordutegia hau izanen da harrerak zibilak ospatzeko: asteleheneetik larunbatera, herrian jaiegun ez badira, 18:00etatik 21:00etara.

17. artikulua. Ekitaldiak gehienez ordu bat eta hogeita hamar minutu iraunen du; bitartean, ezin da ikusgai paratu ekitaldiaren izaerarekin bat egiten ez duen ikurrik.

18. artikulua. Duen izaera dela-eta, horretarako erabiliko den gela ezin izanen da utzi egintza erlijiosoetarako edo, organo eskudunaren ustez, areto horren helburua desitxuratu dezaketen beste erabilera batzuetarako. Organo horrek zainduko du delako gela hori xede jakin horretarako erabiltzen dela.

19. artikulua. Lagapenaren baldintzak dagokion Udalaren organoak onetsitako baimenean zehaztuko dira, eta baimen horretan ezartzen ahal da eskatzaileak jaso zuen bezala itzuli behar duela instalazioa.

20. artikulua. Araudi honetan aurreikusten ez den orotan, Udalaren arduradunek une bakoitzean egokiak irizten dieten aginduak bete behar dira.

21. artikulua. Baldintza horiek ez betetzeak erantzukizun edo zehapen administratiboak ekarriko ditu.

AZKEN XEDAPENA

Erregelamendua honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iragarkiarene kodea: L1008562